BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1463

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 30ekoa, Gazteria eta Kiroletako zuzendariarena, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuetan egindako aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

Kirol Erakundeen Erregistroan 2003ko uztailaren 23an 1. zenbakiarekin inskribatu zen Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuei erredakzio berria eman zaie.

Euskal Kirol Federazioen Batasunak, 2013ko abenduaren 17an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzea erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuen 4. eta 29. artikuluen aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu horiek honela idatzita geldítzen direlarik:

«4. artikulua.– "Euskal Kirol Federazioen Batasunaren" egoitza Getxon egongo da, HTZ eraikina, Los Chopos etorbidean, z/g. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeak ahalmena izango du egoitza aldatzeko udalerri horren barruan. Ordea, elkartearen egoitza beste udalerri batera aldatu nahi bada, Aparteko Batzar Orokorraren onespena beharko da eta estatutuak aldatu beharko dira.»

«29. artikulua.– Zuzendaritzako Batzordea gutxienez 5 kidek osatuko dute, ondorengo karguak izango dituztelarik:

a) Presidentea, "Euskal Kirol Federazioen Batasuneko" presidentea ere izango delarik.

b) Presidenteordea.

c) Batzordekidea.

d) Idazkaria, "Euskal Kirol Federazioen Batasunekoa" ere izango delarik.

e) Diruzaina.»

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, administrazio-bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gazteria eta Kiroletako zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Gazteriako eta Kiroletako zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.